

be veggie!

ABENDUAK 6/7/8 DICIEMBRE FICOB
2025



#7 TXOSTENA

1

INFORMAZIO OROKORRA

DATU NAGUSIAK

Edizioa: 7

Data: 2025eko abenduak 6-7-8

Bisita kopurua: 5.703

Enpresa eta elkarte erakusketariak: 61

Erakusketa eremua: 549 m²

Ordutegia:

ostirala eta larunbata 11:00 - 20:00


igandea 11:00 - 16:00

Web: beveggie.eus

61 erakusketari
5.703 visitas


Bisitarientzako sarrera doakoa izan da, aurretik online izen ematearekin, edo bertan harreraren erregistratuz.





JATORRIA

Be Veggie-n parte hartu duten erakusketarien %44a Euskadi eta Nafarroatik etorri dira, gainontzeko %56a Estatuko beste eskualdeetatik eta Frantziatik zetozen. Hauen artean, Comunitat Valenciana eta Katalunia nabarmentzen dira, parte-hartzaile guztien %21a bertatik etorri bait dira.



ASEBETETZE MAILA

erakusketarien
%94a
jaialdiaren
emaitzekin
pozik daude

Erakusketarien %94a jaialdiaren emaitzekin pozik edo oso pozik daude.

Parte hartu duten erakusketarien %92ak jaialdiaren hurrengo edizioan berriro parte hartuko luketela baieztatu du.



FAKTURAZIOA ETA BATEZ BESTEKO GASTUA

Bisitarien artean egindako inkestan jasotako datuen arabera, honako ondorio hauek lortu ditugu:

Bisitarien estimatutako batez besteko gastua azokan 42,50 euro izan dira.

Inkesta honetan jasotako datuen arabera, azokan salmenta zuzena egiten ari ziren erakusketariiek batezbesteko fakturazioa 3.529,29 eurotakoa izan dela estimatu dezakegu.

Kontutan izateakoa da, estimatutako fakturazio zifra hau jaialdian zehar egindakoa dela bakarrik, beraz, ez ditu kontutan ekitaldiaren ondoren egingo diren salmentak, parte-hartzeari esker lortutako marka eta produktu/zerbitzuen inguruko ezagutzaren ondorioz, bai publiko orokorra, bai bisitari profesionalengandik.

Salmenta zuzena egin zuten erakusketarien fakturazioa 3.529,29 eurotakoa izan dela estimatu dezakegu.



PLANOA

be veggie!




TAUPADA BAKOITZEAN, ALDAKETARAKO IDEIA • TUS PASOS SON EL CAMBIO




IDEAS QUE LATEN POR EL CAMBIO

HANNA
HEALTHY
FOOD



THE VEGGIE
POINT



VANETTA

SABORES
DE LA
INDIA

MONVEG



EKOETXEA TXINGUDI

HAUR
TAILERRAK
-
TALLERES
INFANTILES

LA VIDA COLOR
FRAMBUESA

ASOCIACIÓN
ARGANMAL

POR FAVOR,
NO NOS
COMAS

VERSUM
BEER

MUMI

SANTUARIO
COMPASION
ANIMAL

KULALA

WE
THE
FREE

NATURALIA
-
COSMETICA

AKC
ESPAÑA

TEKNABLEU

GARAGAR
TORREFACCIÓN

XOCO
ALTO

SALSASÓN



MATER

V-LABEL

SUKALDEAN

BERRIKETAN
MUSIKA

PLANETA
DOTS

GURE
GALTZERDIA

EXOTIC
TOUCH

CITRIC
DIET -
REGENESAN

FOI GREEN

GOMICARE

MEDFOODS

KOOLLECTIVE

SANTUARIO
FRENTE LA

GREEN-
PEACE

ITTOITTA

AMAREN
CREACIONES

FASHION
REVOLUTION

LABEL
SOSMETICS

ORIGEN
ECUADOR
-
AFORTUNATO

ACETE
OLIVA
PINTARRÉ
BIO

VIVA
LA VIDA
VEGANAMENTE

FUNDACIÓN
EL HOGAR

AMARA
100 %
VEGETAL

DAME
UN
MUERDO
MOSTAZAS

4ETA2

VANETTA

RINGANA

LA
CARLETA

SIETE
FIBRAS
DE
MEXICO

CUENCOS
ARMONICOS

ECOALKE-
SAN
CALZADO
ÉTICO

ELLIE'S
LAND

IRUN
HONDARRIBIA
-
TURISMO

LA
MANADA
CANTABRA

HAZA
LA CEN-
TENA

VEGA
DE SANTO
TOMÉ

COSS
GUERO-
PRÁCTICO

BRINES
ORGANIC
FRUITS

FUNDACIÓN
SANTUARIO
GAIA

KATU-
BIHOTZ

RECICLA
BIRZIKLA-
TU

SANTUARIO
CORAZÓN
VERDE

MURALA

EL CAMBIO SE COCINA EN TU PLATO • ZURE PAUSOEK DAKARTE ALDAKETA



actúa, cuida(te), come, escucha, aprende >>> ALDAKETA ZURE PLATEREAN HASTEN DA

bizi **be veggie!** vive



SARRERA
ENTRADA
ENTRÉE

CAFÉS
BAQUE

Be Veggie-ko 3 egunetan zehar **38 hitzaldi eta jarduera** proposamen jarri dira bisitarien eskura. Aurten, **1.602 pertsona** gozatu dute egitarau honetaz.

BERRIKETAN



Berriketan dibulgazio-hitzaldien gunea da, baita eguerdiko DJ saioak eta arratsaldeko kontzertuak ospatu diren eremua. Espazio honetan 981 pertsona gozatu dute bertako programazioaz: hitzaldiak, elkarrizketak eta mahai inguruak batez ere. Aurten, lehen-go urteko arrakastaren ondorioz, Malditos Veganos podkastaren kapitulu bat zuzenean grabatu da ere.

Aurtengo Be Veggie-ko ediziotik ondoren aipatzen ditugun hizlariak, eta gehiago ere, pasa dira: Andrea Arrizabalaga, EITB-ko kazetaria, aipatutako Malditos Veganos podkastaren kideak, Rocío Cano Couto eta Mery Ocaña, Pablo de la Chica zuzendaria, "Infiltrada en el búnker" dokumentalari buruz aritu zena, Javier Morales Ortiz idazlea, "La hamburguesa que devoró el mundo" liburuaz hitz egin zuena, Be Veggie-n parte hartu duten babesleku eta santutegietako kideak, esperantza eta erreskate istorioak partekatu zituztenak; Cristina Rodrigok bere (R)Evolución Vegana liburua aurkeztu zuen.


Ariadna Jordá-rekin nutrizio beganoari buruzko gure ezagutza sakondu genuen, Miriam Jiménez Lastrak interes handi bat sorrarazi zuen gai honetaz ausnartu zuen: beganismoa, feminismoa eta ekologismoa, borroka tranbersalak.


Musika protagonista izan zuten tarteetan, musikari hauek izan genituen gure artean: Misseo, DJ J. Macera, DJ Eromena, DJ OM Lila eta Silent Disco San Sebastián.

SUKALDEAN

SUKALDEAN, showcooking saioak egiten diren sukalde set-a da. Aurten 329 pertsona pasa dira bertatik, sukaldariekin batera ikasi eta baita prestatutako platerak dastatzeko aukerarekin.

SUKALDEAN espaziotik Aída Lídice, @beginveganbegun-ekoa, Miriam Ortiz sukaldaria, Maddi Etxeberria nutrizionista eta Sabores de la Indiako Claudia Cafferata pasa dira.





ZOZKETAK


100 euroko balioa izan duten 2 erosketa bonu zozketatu dira, jaialdian produktuak erosteko. Honetaz gain, Euskadiko jatetxe beganoekin interakzioa areagotzeko asmoarekin, **100 eurotan baloratutako bazkari/afari bonu bat zozketatu da** ere.



SOMATIC MOVEMENT

Aurtengo berrien artean, astelehenean goizeko 11.30etan ospatutako Somatic Movement jarduera izan dugu, Silent Disco San Sebastián-ek antolatua.

30 pertsona hartu dute parte jarduera berri honetan, esterillaren gainean oso sentrazio onak jasoz. Jarduera hau Ficobako eraikin nagusiaren lehenengo solairuan gertatu da.



MURALA ZUZENEAN


Ane Arzelus ilustradore donostiarrak Be Veggie-k iraun dituen 3 egunetan zehar, Be Veggie-n inspiratutako murala sortu eta margotu du. Murala inspiratu duten balio eta irizpideen artean hauek egon dira: animalien gaineko errespetua eta zaintza, planetaren zaintza eta, nola ez, elikadura %100 begetala. Muralaren tamaina hau izan da: 2,80 m altuera eta 6,20 m zabalera.





HAURRENTZAKO JARDUERAK

ARTE TAILERRAK



Etxeko txikientzako erakarpen- eta entretenimendu-puntu bat eskaintzeko helburuarekin, familientzako jarduera sortzaileak mantendu dira programan: horma-irudia, mandalak eta aurpegi margoteka. 256 haur pasa dira hemendik.

ESCAPE BOX - TERMINUS



Ekoetxea Txingudiren eskutik, Escape Box TerminUs Be Veggie-ra iritsi da. Ihes-joko honetan, parte-hartzaileak istorio baten protagonista bihurtzen dira, eta hainbat proba gainditu beharko dituzte TerminUS zer den ezagutzeko: planetaren norabidea aldatzeko dugun azken data, eta nola larrialdi klimatikoari aurre egiteko gure ohitura eta ekintza batzuk aldatu ditzazkegun ikasi, jolasaren bitartez.

Moda jasangarriaren iñauteria

Fashion Revolution-en espazioa Be Veggie-n kontsumo arduratsuaren kontzeptuak transmititzeko bideratua egon da: janzteko orduan hartzen diren erabakien garrantziaz, arropa zaintzeaz, hondakinen kudeaketaz eta oinarrizko ezagutzez hitz eginez, ehungintza munduaren inguruko ohitura onak sustatzeko helburuarekin. Ehungintza industriaren ingurumen- eta gizarte-kontzeptuak hurbiltzeaz gain, Fashion Revolution Euskadik moda eta belaunaldi gazteak elkartzeko bide berriak irekitzen ditu: diziplina artistikoen fusioa, irudimena eta sormena, jokoa eta dibertsioa. Horretarako, interesdunen eskura hezkuntza-jolasak egon dira, adinaren arabera, baita etxeko txikienei zuzenduta, haien gaitasun kritikoa pizten laguntzeko helburuarekin.



PLANETA DOTS

Ehungintza industriak sortzen dituen hondakinekin kezkaturik, PLANETA DOTS-en erabileratik kanpo geratutako ehunak erabiltzen dituzte lehengai gisa, jantzi eta osagarri berriak sortzeko. Be Veggie jaialdian etengabeko tailer bat garatu dute: ehun-hondakinez egindako giltzatakoak sortu, Be Veggie-ren irudiaren transfer batekin pertsonalizatuta.



Lehenengo edizioetatik, Be Veggie-k iraunkortasuna izan du ardatz, bai jaialdiaren programari dagokionez, gai honi hitzaldi eta jardueretan lekua emanez, bai ekitaldiaren kudeaketan ere. 2021-eko edizioaz geroztik, Be Veggie-k ERRONKA GARBIA zigilua lortu du.




ERRONKA GARBIA
EVENTO AMBIENTALMENTE SOSTENIBLE

Be Veggie 2025k ere Erronka Garbia zigilua lortu nahi du. Be Veggiek jasagarria den ekitaldi bat egiteko erronka hartu du bere gain, eta hau neurtu ahal izateko, helburu hauek ezarri dira antolakuntzaren aldetik: hondakinak murriztea eta modu egokian kudeatzea, eta bertaratutako en mugikortasunean jasagarritasuna neurtzea.

Zigilua lortuz gero, hau lortzen duen ekitaldiaren bosgarren edizioa izango litzateke. Modu honetan, bizi- eta kontsumo-estilo jasagarria sustatzeaz gain, jaialdia bera ingurumen-jasagarritasuneko irizpideei jarraituz kudeatzen dela berretsi egingo zen.

Aurten, stand-etan ez da moketarik jarri eta gune komunetan jarri den moketa berrera-bilgarria izan da.

PUBLIKOAREN MUGIKORTASUNA



Grafikoak Be Veggie-ra bertaratutako bisitarien mugikortasunari buruzko informazioa eskeintzen du: %46a partekatutako kotxean etorri da, %26a oinez ala bizikletan, eta %16a garraio publikoan.

ANTOLAKUNTZA ETA KOLABORATZAILEAK

Be Veggie Ficoba-ko lan talde profesionalak antolatzen du, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren babesarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuko babesarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo departamentuaren babesarekin ere.

Honetaz gain, Be Veggie-k honako hauen kolaborazioa izan du: UVE (Unión Vegetariana Española), ProVeg, VeganaGal, Fashion Revolution Euskadi eta Euskotren. Honako hedabideen laguntzarekin kontatu du: Bueno y Vegano, Easy Organic eta Mi Herbolario.

ANTOLATZAILEA ORGANIZA



F I C O B A

BABESLEAK PATROCINAN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



GIPUZKOA
Jasangarritasuna - Sostenibilidad



HAIN GIPUZKOA
IRUN

LAGUNTZAILEAK COLABORAN



uv'e Unión Vegetariana Española



proveg international



euskotren



FASHION REVOLUTION
Euskadi

PRENTSA KOLABORATZAILEA PRENSA COLABORADORA



BIOECO
ACTUAL



Bueno y Vegano



easy ORGANIC



mi herbolario
revista especializada para profesionales de la salud

ecoticias.com
el periódico verde

GK GREEN FASHION ESPAZIOA



GIPUZKOA KLUSTERRA

GIPUZKOAKO MODA IRAUNKORREKO KLUSTERRA
CLÚSTER GIPUZCOANO DE MODA SOSTENIBLE



Be Veggie-tik Gipuzkoako moda jasangarriaren klusterra, GK Green Fashion, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren baitakoa, nabarmendu nahi dugu. GK Green Fashion Clusterrak aurten ere Be Veggie plataforma hedatzaile gisa aukeratu du, eta horretarako Euskadiko jaialdi beganoan balio handiko eduki praktikoa eskaina dute.

GK Green Fashion-ek Be Veggie-n izan duen espazioan hainbat tailer eskaini dira, 3 oinarri desberdin izan dituztenak: ehunen berrerabilpena, hondakin organikoak sormen-lanetarako lehengai gisa erabiltzea, eta baita kosmetika naturala eta DIY gaien ingurukoak ere. Guztira, 126 pertsona gozatu dute tailer hauetaz.

Espazio honetan garatu diren jarduera zehatzak hauek izan dira:

Fashion Revolution Euskadiren eskutik, hondakin ehunez egindako Gabonetako koroen tailer bat eta oihalezko poltsak egiteko tailer bat.

Los Talleres de Rut eta Laida, Recicla Birziklaturen bitartez, kosmetika eta etxeko zaintzari buruzko tailerrak eskaini dituzte: lau hanketako gure laguntzat zaintza-produktuak sortu dituzte, eta baita etxerako toxikorik gabeko garbiketa produktuak ere.

Organic Studio-k bi tailer garatu ditu biozeraamikaren inguruan, hondakin organikoak erabiliz diseinu jasangarriak sortzeko.

Azkenik, Ixkin Berdeak natur elementu kontserbatuekin tailer polit bat gauzatu du, non partaide bakoitzak argazki-marko bat apaindu duen, kontserbatutako likenak erabiliz.




Green
Fashion



GIPUZKOA
KLUSTERRA








JATORRI OROKORRA



Be Veggie-ra bertaratutako publikoaren %78a Gipuzkoako udalerriren batetik etorri da, bisitarien %7,5a Iparraldetik etorri da ekitaldira. Publikoaren %11a Euskadiko beste lurraldeetatik eta Nafarroatik bertaratu da. Bisitarien %3a Estatuko beste erkidegoetatik hurbildu da Euskadiko jaialdi beganora.

GIPUZKOAKO PUBLIKOA | ESKUALDE ARTEKO BANAKETA




Be Veggie-ka jaso duen Gipuzkoako publikoaren artean, %46a Bidasoa Behea eskualdeko udalerriren batetik etorri da, Donostialdetik etorritako Gipuzkoako publikoaren %30a atzetik.


PUBLIKOARI EGINDAKO INKESTA

Be Veggie-n zehar, bisitarietako inkesta bat egin zaie, bere feedback-a jasotzeko eta bisitarien perfila hobeto ezagutzeko helburuarekin. Hauek dira jasotako datuen artean nabarmentzen direnak:


Beganoa zara?




Zenbat diru gastatu duzu?




Zein da zure adina?



Jaialdiarekin asebetetze maila



Generoa



Jaialdian zehar inkesta bete duen publikoaren %56,10a ez da beganoa. Bisitarien %20ak beganoa dela adierazi du, eta gainontzeko %24,30a begetariano edo flexitariano bezala identifikatu da. Publikoaren %44,50ak 45 urte baino gutxiago ditu eta Be Veggie-ra bertaratutako publikoaren %80ak zerbait erosi du ekitaldian. Bisitarien %30ak 50 euro baino gehiago gastatu ditu erosketetan. **Publikoaren %81,30a pozik edo oso pozik geratu da Be Veggie-ra egindako bisitarekin.** Inkestan jasotako datuak kontutan hartuz, bisitarien %60,20a (3.433) emakumeak, %38,90a gizonak (2.218) eta %0,90a (51) beste genero batzuekin identifikatzen dela estimatu dezakegu.

TXAKURRAK BE VEGGIE-N

Aurten 183 txakur etorri dira Be Veggie-ra. Ficobako kanpokaldera sarrera jarri da beraien erabilerarako, euren beharrak ekitalditik atera gabe egin zitzaten.

Datu hau, txakurren sarrera baimendu zenetik, Be Veggie-k jaso duen txakur kopuru handiena da, eta aisialdia gure 4 hanketako lagunekin partekatzeko dagoen interesa isladatzen du.



7

PUBLIZITATEA ETA INPAKTUAK

Hauek izan dira Be Veggie-ko publizitate kanpainaren akzio nagusiak:

PUBLIZITATEA KALEAN

-1.850 kartel ezarri dira, udalerri hauetan banatuta: Donostia, Irun, Hondarribia, Renteria, Pasaia, Tolosa, Hernani eta Zarautz Gipuzkoan, Hendaia eta Baiona Iparralden, Bilbo eta Leioa Bizkaian eta Iruña eta Iruñako inguruan Nafarroan. Pamplona y alrededores en Navarra.

-Euskotren: Ticket salmentarako pantailetan Be Veggie-ko irudi digitala ezarri da, eta Zazpi Kaleko Euskotren Geltokian Be Veggie-ko bideoa ikusgai egon da.

-Irungo markesinetan 32 MUPI ezarri dira.

-Loiu eta Hondarribiako aireportuetan promozio turistikorako pantailetan irudia ezarri da.



POSTA BIDEZKO BIDALKETAK, MAILING ETA DEIAK

-Be Veggie-ko posterra posta bitartez bidali da Euskadiko 117 denda espezializatu, denda eta jatetxe begano edo begetarianoetara.

-Mailing kanpainak (mailchimp): hizkuntzaka segmentatutako 6 kanpaina bidali dira (EUS-ES, ES eta EUS-FR) publiko orokorrera zuzenduak, eta beste 2 kanpaina, sektoreka segmentaturik, publiko profesionalera zuzenduak. Kanpainak azaroa eta abendua bitartean bidali dira, 29.000 kontaktu baino gehiago dituen datu basera.

-Dei informatiboak egin dira, bisitak indartzeko, denda gourmet, begano eta belarden-datarara.

PRENTSA ESPEZIALIZATUA

EDIZIO FISIKOAK

Bueno y Vegano: publizitate insertzio bat egin da, urriko Bueno y Vegano-ren edizioan, denda espezializatueta (belardendak e.a.) eta Veganagal azoka beganoan banatua dena.

ONLINE EDIZIOAK ETA INFORMAZIO ATARIAK

Bueno y Vegano: publizitate insertzio bat urriko Bueno y Vegano-ren online edizioan.

Vegetus: 2 publizitate insertzio, hirugarren eta laugarren hiruhilabeteko UVE-k editatzen duen online aldizkarian. line editada por UVE.

Mi herbolario: web banner bat ezarri da azaroan zehar

Bueno y Vegano
El día de los alimentos más cercanos a los cultivos y vegetales

El día de los alimentos más cercanos a los cultivos y vegetales, como las frutas, verduras y legumbres, son los alimentos más saludables y ricos en nutrientes. Estos alimentos son la base de una dieta equilibrada y saludable. En este artículo, vamos a hablar de los beneficios de estos alimentos y cómo incorporarlos a nuestra dieta diaria.

Silvia Buzagata
Fundadora de la asociación Vegano y autora del libro 'Vegano'

Los alimentos más cercanos a los cultivos y vegetales son los alimentos más saludables y ricos en nutrientes. Estos alimentos son la base de una dieta equilibrada y saludable. En este artículo, vamos a hablar de los beneficios de estos alimentos y cómo incorporarlos a nuestra dieta diaria.

EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI | JAIALDI BEGANOA | EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI | #BeVeggie2025

VIDA 100% VEGETAL

COSMÉTICA

MÚSICA

GOOD FOOD GOOD MOOD

MODA

EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI | JAIALDI BEGANOA | EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI | #BeVeggie2025

ALIMENTACIÓN Y SALUD

Bueno y Vegano

El día de los alimentos más cercanos a los cultivos y vegetales, como las frutas, verduras y legumbres, son los alimentos más saludables y ricos en nutrientes. Estos alimentos son la base de una dieta equilibrada y saludable. En este artículo, vamos a hablar de los beneficios de estos alimentos y cómo incorporarlos a nuestra dieta diaria.

Bebés veganos

En los primeros dos años de la alimentación infantil es un poco diferente, ya que el desarrollo principal, sobre todo durante el primer año de vida, es la leche. Como en el resto de los bebés, la mejor leche que pueden recibir los bebés de familias veganas es la leche materna. Si esto no es posible o suficiente, hay fórmulas especializadas para lactantes a base de proteínas de soja o de arroz. En el caso de la leche de soja, se debe elegir la que sea libre de soja y que se pueda adaptar a la lactancia. Es importante consultar con el pediatra o con un dietista especializado en lactancia, especialmente para saber qué fórmula es la más adecuada para cada bebé y cómo introducir los alimentos sólidos de manera adecuada. Los bebés veganos deben tomar un suplemento semanal de vitamina B12 como refuerzo.

Los niños y niñas veganos deben tomar un suplemento semanal de vitamina B12 como refuerzo

En resumen, una alimentación vegana es perfectamente posible en la infancia y aporta beneficios tanto a la salud como al medio ambiente. Sin embargo, es importante tener en cuenta algunos aspectos clave para garantizar que los niños y niñas veganos estén bien nutridos y saludables. Esto incluye la elección de alimentos ricos en nutrientes, la consulta con un profesional especializado y la toma de suplementos necesarios.

IRRATIA

80 publizitate insertzio:

- Euskadi Irratia
- Euskadi Gaztea
- Los 40 San Sebastian
- NRJ Biarritz

beveggie.eus | EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI | JAIALDI BEGANOA | EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI | #BeVeggie2025

VIDA 100% VEGETAL

beveggie.eus | EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI | JAIALDI BEGANOA | EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI | #BeVeggie2025

ONLINE PUBLIZITATE KANPAINA

Ondorengo atalak izan dituen online publizitate kanpaina izan da Be Veggie-ko hedatze kanpainaren ardatz nagusia: SEM kanpaina, PMAX kanpaina, publizitate programatikoa eta kanpaina Meta-n (Instagram eta Facebook), Tiktok, eta Youtube. Hauek dira kanpainak lortu dituen batezbesteko emaitzetako batzuk

IMPRESIOAK	4.573.901
KOBERTURA	995.270
KLIKAK	16.238
CTR	0,36%

bizi **be veggie!** **vive**

ABENDUAK 6/7/8 DICIEMBRE FICOBA


>>>> DOAKO SARRERA ENTRADA GRATUITA <<<<

EUSKADIKO JAIALDI BEGANOA

 **ekin zaindu jan entzun ikasi**

actúa cuida(te) come escucha aprende





EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI

bizi **be veggie!** **vive**

ABENDUAK 6/7/8 DICIEMBRE FICOBA

vive **be veggie!**

6/7/8 DICIEMBRE FICOBA

>>>>> ENTRADA GRATUITA <<<<<<

vive **be veggie!**

6/7/8 DICIEMBRE FICOBA

EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI >>> ENTRADA GRATUITA <<<

IDEAS QUE LATEN POR EL CAMBIO



actúa cuida(te) come escucha aprende

HEDABIDEETAN INPAKTUAK

Be Veggie-k 53 inpaktu izan ditu hedabideetan, artikulua, aipamenak eta elkarrizketak barne.

IRRATIA	19
PRENTSA (PAPE- REAN / ONLINE)	27
BESTE BATZUK	7

EL DIARIO VASCO

Irún

Be Veggie inaugura mañana un intenso fin de semana

J. O.
IRUN.
Jueves, 4 de diciembre 2025, 19:50

Comenta Guardar Compartir

Be Veggie, el festival vegano de Euskadi, inaugura mañana sábado en Ficoba su séptima edición. La cita se ha consolidado como un espacio dirigido no sólo al público vegano, sino al conjunto de «quienes apuestan por una vida más ética, sostenible y saludable», indican desde Ficoba. Es punto de encuentro para «descubrir, compartir y disfrutar de alternativas que respetan a los animales, el medioambiente y las personas».

En esta séptima edición estarán presentes más de 60 expositores, quince asociaciones y seis food trucks. El programa del festival se completa con una agenda que incluye más de cuarenta propuestas, entre talleres, show cookings, charlas o música en vivo.



Be Veggie

BE VEGGIEN, JAN, IKASI ETA EGIN

IRUN. Larunbatetik (bihartik) astelehenera Be Veggie jaialdi beganoaren etxe izango da Ficoba erakustazoka. Sarrera eta aparkatzea doan izango dira. Hilaren 6 eta 7an 11:00etatik 20:00etara izango da zabalik Be Veggie eta hilaren 8an 11:00etatik 16:00etara. Hiru ardatz izango ditu aurtengoak: jatea, ikastea eta ekitea. Beraz, horien inguruan antolatuko dira Ficoban izango diren postuak, baita jarduera osagarriak ere: hitzaldiak, tailerrak, erakustaldiak, familia jarduerak... Informazio gehiago, hemen: [beveggie.ens](#).



Découvrez le
PAYS BASQUE

[Accueil](#) > [Agenda](#) > [Festivals](#) > [Irún](#) > Be Veggie - le festival vegan du Pays basque

IRUN

samedi 6 au lundi
8 décembre 2025

BE VEGGIE -
LE FESTIVAL
VEGAN DU
PAYS BASQUE



Be Veggie: el festival vegano de Euskadi

01/12/2025

Los días **6, 7 y 8 de diciembre** son los escogidos para esta nueva edición de Be Veggie, el evento que promueve un estilo de vida vegano y sostenible. **Be Veggie** reúne a productores de alimentos 100% vegetales, moda vegana, artesanía, cuidado personal, cosmética, yoga y oenegés, santuarios y asociaciones implicadas en la defensa de los animales. Los visitantes pueden participar en talleres para toda la familia, comer y beber en los food trucks instalados en la feria, aprender nuevas formas de cocinar en los showcookings, escuchar música en directo, hacer yoga y atender a las conferencias y charlas que, como siempre, despiertan mucho interés.



KANPAINARAKO MEZU PLATAFORMA KREATIBOA

Be Veggie-ren zazpigarren edizioko kanpaina mezu nagusi berri baten inguruan egituratu da, Be Veggie-ren balioak eta helburua indartzeko: beganismoa bizitzeko modu gisa sozializatzeko eta ahotsa emateko tresna erabilgarria izatea.

Horretarako, BIZI aditza (gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez) gehitu zaio logotipoari, eta baita beste aditz hauek ere: EGIN, ZAINDU, JAN, ENTZUN eta IKASI.

Aditz horiek guztiak, beti aginteran erabiliak, aukera eman digu Be Veggie-ren oinarrian dauden ideia nagusiekin konektatzeko eta bere eduki guztia modu deskriptiboago batean zabaltzeko:

EGIN: Be Veggie-n animalien eta planetaren alde jardutera bultzatzen duen unibertsoa aurkitzen da.

ZAINDU: Be Veggie zaintzera gonbidatzen duen ekitaldia da, eta horretarako tresnak eskaintzen ditu: animalia, planeta eta norbera zaintzeko.

JAN: Be Veggie janaria ardatz duen jaialdia da, oso anitz eta zapoetsu jateko aukera dago ekitadian, eta beti %100 landare-jatorrikoak den janaria.

ENTZUN: Be Veggie elkargune bat da, ideiak entzun eta musika-proposamen desberdinak entzuteko tokia.

IKASI: Be Veggie-k ikasteko ateak irekitzen dizkigu, kontzeptu eta errealitate berriak ezagutzeko aukera emanez, hausnarketarako bideak zabalduz.


BIZI Be Veggie zer den zehazten duten 5 azpi-mezu hauetatik, hiruk claim bereizi bana dute, gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez, eta horrek aukera eman du kanpainako euskarri ezberdinetan mezu pertsonalizatuak zabaltzeko. Mezu bakoitza Be Veggie-ren sticker batez lagunduta doa.

EGIN




**ZURE
PAUSOEK
DAKARTE
ALDAKETA**

JAN



**ALDAKETA
ZURE
PLATEREAN
HASTE DA**

IKASI



**TAUPADA
BAKOITZEAN
ALDAKETARAKO
IDEIA**

Mezu plataforma kreatibo hau karteletan, MUPIetan eta bannerretan erabili da, baita beste euskarrietan ere.

be veggie!

ABENDUAK 6/7/8 DICIEMBRE FICOPA

>>>>>>> DOAKO SARRERA ENTRADA GRATUITA <<<<<<<<<



be veggie!

ABENDUAK 6/7/8 DICIEMBRE FICOPA

EUSKADIKO JAIALDI BEGANOA EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI

>>>>>>>> DOAKO SARRERA ENTRADA GRATUITA <<<<<<<<<<



be veggie!

ABENDUAK 6/7/8 DICIEMBRE FICOPA

EUSKADIKO JAIALDI BEGANOA EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI

>>>>>>>> DOAKO SARRERA ENTRADA GRATUITA <<<<<<<<<<



be veggie!

ABENDUAK 6/7/8 DICIEMBRE FICOPA

EUSKADIKO JAIALDI BEGANOA EL FESTIVAL VEGANO DE EUSKADI

>>>>>>>> DOAKO SARRERA ENTRADA GRATUITA <<<<<<<<<<



Be Veggie markaren presentzia sendotzen jarraitzeko helburuarekin, jaialdiaren zazpi-garren edizioan merchandising-a sortu da, Be Veggie-ren identitatea ekitaldiarekin lotutako edo bertan parte hartzen duten pertsonen —hizlariak zein bisitariak— eguneroko erabilerako euskarrietan bizirik iraun dezan.

KATILUAK





BE VEGGIE 2025 IRUDITAN





ESKERRIK ASKO!

bizi
be veggie! *vive*